

AUR-EZIKETA (15)

JUANTXO-TXIKI MAITE IZAN

—Baiña, zuk uste dozu guk gure umeak ez ditugula maite, ala zer? Maite izateko? Ori be esan egin bear da, gero...

—Bai, ori be esan. Izan be maitetzeko era asko dagoz...

—Eta...?

—Tximiñoak be maite dituela euren umeak...

—Txarto eta dago ori...?

—Maitearen maitez, bere umea ito egin ebalu tximiñoak. Ez zara tximiño izango...!

* * *

Gauza guztiak lez, maitasunak be, bere neurriak bear dauz. Neurriak ez badozu, zeure Juantxo-txiki ito egin leikezu.

—Baiña, neurriak izan leike maitasunak, ala...?

—Maitasunean bertan ez bada, maitatzeko eran eta moduan... Geiegizkorik badago...

—Zelan izan leiteke geiegizkorik gure umienganako maitasunean...?

—Maitasunaren agerpena bear dau lakoa bada, orduan ez da geiegizkorik izango maitasunean; agerpen ori, alan ez bada, orduan okerrak ekarri leikez gure umetxoari. Bere amak ito eban tximiño-txikia esku artean, eta maite ebalako ito be. Maitasun agerpena ez zan ona izan.

Besarkada maitasunaren agerpen bat da: agerbide on bat. Baiña, geiegirik gabe, esku-arte itoko dozu bestela Juantxo-txiki tximiñoak bere kumea ito eban antzera.

* * *

Semea maitatzea bere onaren billa ibiltea da. Baiña, bere ona ez da zure ona izaten zenbaitzuetan. Bere onaren billa ibilli bearrean, tarteka zeure lasaitasuna, zeure atsegiña, zeure arrokeria billatzen dozu...

Zeure norberekoikeria eta egoismoa ez da neurri egokia Juantxo-txiki maitatzean; bere ona da neurri egokia zuretzat... Juantxo-txiki maitatzea ez da zeure burua maitatzearekin amaitzen. Juantxo-txikiren maitasuna aitzaki dozula, ez ibilli zeure onaren billa. Bere on utsa, orra or zeure elburua. Interesik gabe. Utsik. Zeure ondorenari begiratu barik.

* * *

Era orretara maitatu bear dozu Juantxo-txiki. Orrean irabaziko dozu bere biotza. Bestela, ez da erreza izango. Biotza eta uste osoa irabazitakoan, orduantxe egongo da Juantxo-txiki pozik zeure menpean. Pozik egon be zeure aginduak pozik eta alaitsu betez. Zeure atsegiñerako eta bere onerako izango da.

* * *

Begirunea eta errespetoa izan bear dautsozu maitasunarekin batera. Juantxo txikia izan arren, nortasuna dauko, persona bada eta orregaitik errespetoa eta begirunea bear jako.

Bere buruaren jabegai da eta askatasunerako egiña. Bere eskubide orreintzat izan egizu begirune aundia. Ez jo. Ez beeratu. Ez zapaldu... Maitasuna eta begirunea, erabili bearko dozuz zure eta Juantxo-txikiren arteko artu-emonetan.